BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

1201

EBAZPENA, 2012ko otsailaren 21ekoa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, antzerkiko profesionalak prestatzeko egitarau eta jarduerei diru-laguntzak emateko balorazio batzordeko batzarkideak izendatzen dituena eta batzordearen osaera argitaratzen duena.

Ikusirik Kulturako sailburuaren 2011ko abenduaren 21eko Agindua, hots, antzerkiko profesionalak prestatzeko egitarau eta jarduerei diru-laguntzak emateko modua garatzen duena.

2011ko abenduaren 21eko Aginduaren 7. artikulua xedatzen denez, aipaturiko diru-laguntzak emateko balorazio batzorde bat osatuko da eta batzorde horren batzarkideak izendatzea Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen bidez egingo da,

Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio batzordeko batzarkideak izendatzea eta batzorde horren osaera argitaratzea. Beraz, batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Lehendakaria: Mikel Toral López jauna (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Batzarkideak:

– Marisol Nájera Irazu andrea (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila).

– José Luis Ibarzabal Egibar jauna (Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila).

Idazkaria: Arturo García Fiel jauna (Kultura Saileko teknikaria).

Bigarrena.– Honako ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko otsailaren 21a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.